

## EKO GUNeko I. ARGAZKI LEHIAKETA: "BIZIKLETA"

Mugikortasun iraunkorraren arloan sentiberatzeko, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea "Mugikortasun Iraunkorraren Europar Astea"ri atxiki zaio. Ekimena irailaren 16tik 22ra bitartekoa izango da. Eta horretarako, Uribe Kostako I. argazki-lehiaketa antolatu da, bizikleta gaitzat harturik.

Hona hemen sariak:

1. **SARIA: 300 €**
2. **SARIA: 150 €**

### 1. PARTE-HARTZAILEAK ETA MODALITATEAK:

18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte lehiaketan.

### 2. GAIA:

Uribe Kostako I. argazki-lehiaketaren gaia "bizikleta" da.

### 3. ARGAZKIEN EZAUGARRIAK:

Teknika librea erabiliz aterako dira argazkiak, zuri-beltzean edo koloretan. Argazkiak ukitu ahal izango dira, baina ezin izango zaizkio elementuak gehitu edo ezabatu, argazki batzuk nahastu edo jatorrizko osaera aldatu.

Argazkiek jatorrizkoak izan beharko dute, inoiz argitaratu gabeak eta inoiz ez sarituak, ez eta beste lehiaketa batzuetan inoiz aurkeztuak ere.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Parte hartzen duten lanak bi formatutan aurkeztu beharko dira:

- Argazki-paperean (20x30 zm), neurri bereko euskarri zurrun batean jarrita.
- Formatu digitalean (JPG formatuan), 24x30 zm edo 20x30 zm neurrian, 300 pp-tan, CD batean aurkeztuta.

#### 4. ARGAZKIAK NOLA AURKEZTU:

Lanak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko bulegoetan aurkeztu beharko dira, edo eta postaz bidali helbide honetara:

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea  
EKO GUNE  
Gatzarriñe 4  
48600 - Sopelana

Pertsona bakoitzak ondoko dokumentazio hau ekarri beharko du:

Argazkiak gutun-azalean aurkeztuko dira, banan-banan sartuta, eta gutun-azalaren kanpoaldean argazkiaren izena idatzita egongo da. Barruan, argazkiaz gain —atzealdean titulua daramala—, izena emateko orria ere sartuko da. Gutun-azalaren kanpoaldean berriro agertu beharko du argazkiaren izenburuak.

Inork argazki bat baino gehiagorekin parte hartzen badu, argazki guztiak gutun-azal berean aurkeztu ahal izango dira, horietako bakoitzak atzealdean izenburua daramala. Horrelakoetan, hala ere, izena emateko orri bakarra ekarri beharko da, betiere gutun-azalean sartuta. Gutun-azalaren kanpoaldean, barruko argazki guztien izenburuek agertu beharko dute.

#### 5. EPEA:

Argazkiak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko bulegoetan aurkeztu beharko dira 2011ko irailaren 9ko 15:00 arte.

## 6. EPAIMAHAIIA:

Argazkiak entregatzeko epea amaituta, Epaimahaiak lehiaketara aurkeztu diren argazkiak baloratuko ditu, ondoko irizpide hauek kontuan hartuz:

- Kalitatea.
- Originaltasuna.
- Gaia tratatzeko era.

Hona hemen Epaimahaiaren osaera: Uribe Kostako kultur etxeetako teknikariak, argazkilari profesional bat eta EKO GUNEko ordezkari bat.

Epaimahaiak eman gabe utzi ahal izango du lehiaketa, eta ahalmena izango du oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztiak ebazteko.

Espazio-arazorik izatekotan, Epaimahaiak beretzat gordetzen du Mankomunitateak zehazten duen lokalean erakusgai egongo diren argazkiak hautatzeko eskubidea, betiere kalitate artistikoa kontuan hartuta.

## 7. EBAZPENA:

Argazki guztiak aztertu ondoren, 2011ko irailaren 16an emango da epaia, 12:00etan, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen web orrian ([www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org)) eta iragarki-oholean. Irabazleei emaitzaren berri emango zaie.

Jasotako argazkiekin erakusketa ibiltaria antolatuko da Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udaletan. Erakusketa horien data 2011ko irailaren 16an bertan emango da ezagutzera, web orriaren bitartez ([www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org)).

## 8. SARI-BANAKETA:

Sariak 2011ko irailaren 22an banatuko dira, Mankomunitateak zehaztutako lekuan eta orduan.

Hona hemen sariak:

1. **SARIA: 300 €**
2. **SARIA: 150€**

Pertsona bakoitzak gehienez ere sari bat jaso dezake.

## 9. JABETZA:

Aurkeztutako argazki guztien jabetza Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearena izango da. Mankomunitateak beretzat gordetzen du argazkiok erakutsi, berregin edo zeinahi bitartez argitaratzeko eskubidea, betiere irabazi-asmorik gabe. Egileak, hala ere, ezin izango du jabetza-eskubiderik eskatu.

## 10. ERABAKI GEHIGARRIAK:

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

Epez kanpo aurkeztutako argazkiak ez dira onartuko.

Paperezko argazkiak berreskuratu nahi dituztenek eurek etorri beharko dute horiek hartzera. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko bulegoetan jaso ahal izango dira argazkiok, 2011ko abenduaren 22tik 2012ko martxoaren 22ra. Data hori igarota, argazkien jabetza Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearena izango da.

Beste edozein argibidetarako, deitu 946579280 telefonora edo idatzi [ekogune@uribekosta.org](mailto:ekogune@uribekosta.org) helbidera.

# I. CONCURSO DE FOTOGRAFIA DE EKO GUNE "LA BICICLETA"

Con el objetivo de sensibilizar en materia de movilidad sostenible, la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta se ha adherido a la "Semana Europea de la Movilidad Sostenible" (del 16 al 22 de septiembre). Para ello se ha organizado el primer Concurso de fotografía Uribe Kosta cuya temática es la bicicleta.

Los premios serán los siguientes:

**1º PREMIO: 300 €**

**2º PREMIO: 150 €**

## 1. PARTICIPANTES Y MODALIDADES:

Podrá participar en el concurso, cualquier persona mayor de 18 años.

## 2. TEMA:

El tema del primer concurso de fotografía de Uribe Kosta es "la bicicleta".

## 3. CARACTERISTICAS DE LAS FOTOGRAFÍAS:

Se tratará de fotografías de técnica libre, en blanco y negro o en color. Se permitirá el retoque de las fotografías siempre que no sea para añadir o eliminar elementos, mezclar varias fotos o modificar su composición original.

Las fotografías deberán ser originales y no haber sido publicadas y/o premiadas ni presentadas en otros concursos.

Podrán presentarse un máximo de 3 fotos por persona participante.

Las obras participantes deberán presentarse en dos formatos:

- En papel fotográfico tamaño 20x30 cm, en un soporte rígido del mismo tamaño.
- En formato digital formato jpg y a un tamaño de 24x30 cm o 20x30 cm y 300 pp, en un CD.

#### 4. PRESENTACION DE LAS FOTOGRAFÍAS:

Las obras deberán presentarse en las oficinas de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta o enviarlas por correo postal a:

**Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta**  
Att. EKO GUNE  
Gatzarriñe nº 4  
48600 Sopelana.

Cada persona presentará la siguiente documentación:

Cada una de las fotografías se presentará en un solo sobre en cuyo exterior estará escrito el título de la misma. En el interior del mismo, además de la fotografía propiamente dicha con el título en el reverso, se incluirá un sobre cerrado dentro del cual se presentará la hoja de inscripción. En el exterior de dicho sobre deberá aparecer de nuevo el título de la misma.

En caso de que una misma persona participe con más de una fotografía, se podrán presentar las tres fotografías en el mismo sobre, todas ellas con el título en la parte trasera, y un único sobre con la hoja de inscripción debidamente cumplimentada. En el exterior de este sobre deberán figurar los títulos de todas las fotografías presentadas.

## 5. PLAZO:

Las fotografías deberán presentarse en las oficinas de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta antes de las 15:00 horas del día 9 de septiembre de 2011.

## 6. JURADO:

Finalizado el plazo de entrega, el Jurado del concurso valorará las fotografías presentadas, en base a los siguientes criterios:

- Calidad.
- Originalidad.
- Tratamiento del tema.

El jurado estará compuesto por técnicos de las casas de cultura de los municipios de Uribe Kosta, un fotógrafo profesional y una persona representante de EKO GUNE.

El jurado podrá declarar desierto el concurso quedando además facultado para resolver todas las incidencias no previstas en estas bases.

El jurado se reserva la facultad de designar, por razones de espacio, las fotografías que a su juicio merecieran ser expuestas, por su calidad artística, en el local señalado por la Mancomunidad.

## 7. RESOLUCIÓN:

Una vez examinadas todas las fotografías el fallo se dará a conocer el día 16 de septiembre de 2011 a las 12:00 horas, en la página web [www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org) y en el

tablón de anuncios de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta. Se notificará el resultado a las personas ganadoras.

Con las fotografías recibidas se hará una exposición itinerante en los municipios de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta. La fecha de estas exposiciones se dará a conocer a través de la web [www.uribekosta.org](http://www.uribekosta.org) el mismo día 16 de septiembre de 2011.

## 8. ENTREGA DE PREMIOS:

El día 22 de septiembre de 2011 se procederá a la entrega de premios en el lugar y hora señalada por la Mancomunidad.

Los premios serán los siguientes:

**1º PREMIO: 300 €**

**2º PREMIO: 150 €**

Ninguna persona podrá beneficiarse de más de un premio.

## 9. PROPIEDAD:

Todas las fotografías presentadas quedarán en propiedad de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta, que se reserva el derecho de su exposición, reproducción y/o publicación por cualquier medio sin ánimo de lucro, sin que ello suponga ni sean exigibles derechos de autor/autora.

## 10. DISPOSICIONES ADICIONALES:

La participación en este concurso, implica la aceptación de las bases.



No se admitirán las fotografías presentadas fuera de plazo.

La devolución de las fotografías en formato papel será por cuenta de las personas participantes que las deseen recuperar. Se podrán recoger en las oficinas de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta, a partir del día 22 de diciembre de 2011, hasta el 22 de marzo de 2012. Pasada esta fecha, las fotografías serán propiedad de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta.

Para cualquier otra información, las personas interesadas podrán llamar al número 946579280 o escribir a [ekogune@uribekosta.org](mailto:ekogune@uribekosta.org).

